



2019

EUSKADILITERATURASARIAK
PREMIOS LITERATURA EUSKADI

2019

Literatura Euskaraz / Literatura en Euskera

Euskarazko Haur eta Gazte Literatura / Literatura Infantil y Juvenil en Euskera

Literatura Lanaren Irudia / Ilustración de una Obra Literaria

2019ko urriaren 2an / 2 de octubre de 2019

PRENTSA OHARRA
NOTA DE PRENSA**Irati Elorrieta, Patxi Zubizarreta eta Asisko Urmeneta dira aurtengo Euskadi Literatura Sarietako lehenengo hiru irabazleak**

- *Literatura Euskaraz, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura eta Literatura Lanaren Ilustrazioa modalitateetako irabazleak izan dira, hurrenez hurren.*

Gasteiz, 2019/10/02

Bingen Zupiria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak ezagutzera eman ditu Euskadi Literatura Sarietako aurtengo lehenengo hiru irabazleak, Gasteizko Artium Museoan. Literatura Euskaraz, Euskarazko Haur eta Gazte Literatura eta, hirugarrenik, Literatura Lanaren Ilustrazioa dira gaurkoan ezagutzera eman diren hiru modalitateak.

- Euskarazko Literatura: Irati Elorrieta, *Neguko argiak*.
- Euskarazko Haur eta Gazte Literatura: Patxi Zubizarreta, *Korrik, Kuru, korri!*.
- Literatura Lanaren Ilustrazioa: Asisko Urmeneta, *AztiHitza: Xahoren Biografikoa*.

Zupiria sailburuak nabarmendu duenez, sortzaileei egiten zaien aitortzaz harago, sari hauen bitartez beren lana agerikoa egin nahi da euskal gizartearen aurrean. “Sari hauen bitartez aitortu nahi dugu gure sortzaileen lana, urteko lanik onenak aitortu eta omendu nahi ditugu. Bestetik, lan horiek ezagutarazi nahi ditugu: gure sortzailerik esanguratsuenak egiten duten lana agerikoagoa egin nahi dugu. Ikusgarriagoa egin nahi dugu, eta datozen egunotan eta hilabeteotan horren inguruan hitz egin dadin nahi dugu”, adierazi du Zupiriak. Datorren azaroaren 18an banatuko dira aurtengo Euskadi Literatura Sariak, Tabakalera egingo den ekitaldi batean. Egun horretan zazpi modalitateetako irabazleak bilduko dira. Bi aste barru gainontzeko lau modalitateetako irabazleak emango dira aditzera:

- Literatura Gaztelaniaz.
- Saiakera Euskaraz.
- Saiakera Gaztelaniaz.
- Euskarazko Literatura Itzulpena.

Saridun bakoitzak 18.000 euroko saria izango du, eta beste 4.000 euro eskura ditzake bere lana beste hizkuntza batean argiratzen bada. Gaur ezagutzera emandako hiru modalitate hauen inguruko informazio guztia hurrengo orrialdetan kontsulta daiteke.

**PRENTSA OHARRA**
NOTA DE PRENSA**Irati Elorrieta, Patxi Zubizarreta y Asisko Urmeneta son los tres primeros Premios Euskadi Literatura de este año**

- *Se han impuesto en las modalidades de Literatura en Euskera, Literatura Infantil y Juvenil en Euskera e Ilustración de una obra Literaria.*

Vitoria-Gasteiz, 02/10/2019

El consejero de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, Bingen Zupiria, ha dado a conocer esta mañana, en el Museo Artium de Vitoria-Gasteiz, los tres primeros ganadores de los Premios Euskadi de Literatura. Literatura en Euskera, Literatura Infantil y Juvenil en Euskera y, en tercer lugar, Ilustración del Trabajo Literario son las tres modalidades que se han dado a conocer hoy.

- Literatura en Euskera: Irati Elorrieta, *Neguko argiak*.
- Literatura Infantil y Juvenil en Euskera: Patxi Zubizarreta, *Korri, Kuru, korri!*.
- Ilustración de la obra literaria: Asisko Urmeneta, *AztiHitza: Xahoren Biografiaren*.

El consejero Zupiria ha destacado que, además del reconocimiento a las y los creadores, a través de estos premios se pretende hacer visible su labor ante la sociedad vasca: “A través de estos premios queremos reconocer la labor de nuestros creadores y creadoras, reconocer y homenajear las mejores obras del año. Pero además, queremos ayudar a dar a conocer estos trabajos: queremos hacer más visible el trabajo que realizan nuestros creadores más significativos. Queremos contribuir a que en los próximos días, en los próximos meses, se hable de estas obras”. Los Premios Euskadi de Literatura se entregarán el próximo 18 de noviembre en un acto que tendrá lugar en Tabakalera y que reunirá a las y los ganadores de las siete modalidades. Dentro de dos semanas se darán a conocer los premios de las cuatro modalidades que quedan por conocer.

- Literatura en Castellano.
- Ensayo en Euskera.
- Ensayo en Castellano.
- Traducción al Euskera de una Obra Literaria.

Cada ganador recibirá 18.000 euros por este reconocimiento, a los que se sumarán otros 4.000 euros en caso de que la obra se publique en otro idioma.

Toda la información en torno a las y los ganadores de las tres modalidades que se han dado a conocer hoy se puede consultar en las siguientes páginas.



EUSKADI LITERATURA SARIAK PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA 2019

Literatura Euskaraz – Literatura en Euskera

Irabazlea - Ganadora: **IRATI ELORRIETA**
Izenburua - Título: ***Neguko argiak***
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**

Euskarazko Haur eta Gazte Literatura – Literatura Infantil y Juvenil en Euskera

Irabazlea - Ganador: **PATXI ZUBIZARRETA DORRONSORO**
Izenburua - Título: ***Korri, Kuru, korri!***
Argitaletxea - Editorial: **Ibaizabal**

Literatura Lanaren Ilustrazioa – Ilustración de una Obra Literaria

Irabazlea - Ganador: **ASISKO URMENETA**
Izenburua - Título: ***AztiHitza: Xahoren Biografikoa***
Argitaletxea - Editorial: **Erroa argitaletxea**



EUSKADI LITERATURA SARIA

LITERATURA EUSKARAZ

2019

Epaimahaia:

- Castillo Suarez Garcia epaimahaiburua
- Jon Martin Etxebeste epaimahaikidea
- Maria Jose Olaziregi Alustiza epaimahaikidea
- Asier Serrano Lasa epaimahaikidea
- Itxaro Borda Charriton epaimahaikidea

Irabazlea eta saria

Irabazlea: Irati Elorrieta
Izenburua: *Neguko argiak*
Argitaletxea: Pamiela

18.000 euroko saria, eta beste 4.000 euro lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaiak ikusitako merituak

Epaimahaiaren iritziz, Irati Elorrietaren “Neguko argiak” eleberriak merezimendu osoz irabazi du aurtengo Euskadi Saria. Nomadak dira nagusi kontakizunean, Europako hiri handietan euren bizimodua aurrera eramaten saiatzen den belaunaldikoak. Marta eta Añes pertsonaiez gain, Berlin hiria bilakatzen da protagonista nagusi, maisutasunez antolatutako mosaikoan. Narratzaileak gogoko du gauetan argia piztuta duten sukaldeetara sartzea, leihoetatik begiratzea, neguko argiak lagun, porrota eta erresistentzia osagai duten istorioak kontatzea.

Irati Elorrieta

1979, Bilbo

Berlinen bizi da. *Burbuilak* (Alberdania, 2008) narrazioz osatutako eleberriaren ostean, *Neguko argiak* hau da bere bigarren lana.

Neguko argiak

“Zer esan behar zion?”, pentsatu du Añesek Berlineko bere sukaldean Xuanekin batera afaria prestatzen ari dela: “Hildako batekin egin duela azkenengoz larrutan?”. Marta etorri da, karaoke bat inprobisatu, eta Pariseko Komuna gogora ekartzen duen kantua abestu du.

Eszena eta ahots franko zelatatzen ditu eleberriak, erritmo azkarreko film baten gisan. Añesen eta Martaren ibilbideak zeharkatzen dituzten hainbat pertsonaia badatoz eta badoaz, leihoetan piztu eta itzaltzen diren argiak bezala, irristan. Porrotari, erresistentziari, ihesari edota berriz zerotik hasi beharri buruzko kontakizunak harilkatuz, leku eta denbora ezberdinetako eszenak proiektatzen dira gizatalde solte baten barne munduan. Egileak eraikitzen duen puzzle gisako horretan, pertsonaia bilakatzen dira leku batzuk: Paris, Uribe Kosta eta, batez ere, Berlin. Osagai horiekin, aldez hutsal aldez gako diren uneen friso bizia ondu du Irati Elorrietak bere bigarren liburuan.

**Aurreko edizioetako irabazleak**

- (1997) Epaltza, Aingeru. *Tigre ehizan*, Elkarlanean.
- (1998) Juaristi, Felipe. *Galderen geografia*, Alberdania.
- (1999) Lertxundi, Anjel. *Argizariaren egunak*, Alberdania.
- (2000) Oñederra, Lourdes. *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Erein.
- (2001) Saizarbitoria, Ramon. *Gorde nazazu lurpean*, Erein.
- (2002) Borda, Itxaro. *%100 Basque*, Susa.
- (2003) Lizarralde, Pello. *Larrepetit*, Erein.
- (2004) Muñoz, Jokin. *Bizia lo*, Alberdania.
- (2005) Cano, Harkaitz. *Belarraren ahoa*, Alberdania.
- (2006) Zaldua, Iban. *Etorkizuna*, Alberdania.
- (2007) Montoia, Xabier. *Euskal Hiria sutan*, Elkar.
- (2008) Muñoz, Jokin. *Antzararen bidea*, Alberdania.
- (2009) Lete, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela.
- (2010) Etxegoien, Fermin. *Autokarabana*, Pamiela.
- (2011) Apalategi, Ur. *Fikzioaren Izterrak*, Susa.
- (2012) Cano, Harkaitz. *Twist*, Susa.
- (2013) Saizarbitoria, Ramon. *Martutene*. Erein
- (2014) Atxaga, Bernardo. *Nevadako egunak*. Pamiela
- (2015) ...
- (2016) Garde Iriarte, Luis. *Ehiztariaren isilaldia*. Pamiela
- (2017) Serrano, Asier. *Linbotarrak*. Pamiela
- (2018) Rodriguez, Eider. *Bihotz handiegia*. Susa



PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

LITERATURA EN EUSKERA

2019

Jurado:

- Castillo Suarez García, presidenta
- Jon Martín Etxebeste, vocal
- María Jose Olaziregi Alustiza, vocal
- Asier Serrano Lasa, vocal
- Itxaro Borda Charriton, vocal

Ganadora y premio

Ganadora: Irati Elorrieta
Título: *Neguko argiak*
Editorial: Pamiela

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si se publica la obra ganadora en otra lengua.

Méritos observados por el jurado

En opinión del jurado la novela *Neguko argiak* de Irati Elorrieta ha ganado el Premio Euskadi de este año con todo merecimiento. Las personas nómadas predominan en el relato de una generación que intenta sacar su vida adelante en las principales ciudades europeas. Además de los personajes de Marta y Añes, la ciudad de Berlín se convierte en protagonista principal en un mosaico construido con maestría. La narración busca entrar en cocinas que tengan la luz encendida por la noche, mirar por las ventanas; con la ayuda de la luz invernal, contar historias de fracaso y resistencia.

Irati Elorrieta

1979, Bilbao

Vive en Berlín. Tras la novela *Burbuilak* (Alberdania, 2008), formada por distintas narraciones, *Neguko argiak* es su segundo libro.

Neguko argiak

“¿Qué le iba a decir?”, piensa Añes mientras prepara la cena con Xuan en su cocina berlinesa: “¿que su último polvo lo echó con un difunto?”. Ha venido Marta, ha improvisado un karaoke y ha cantado una canción que recuerda la Comuna de París.

La novela representa numerosas escenas y voces, cual película de ritmo frenético. Distintos personajes que se entrecruzan en las vidas de Añes y Marta vienen y van, deslizándose como luces que se encienden y apagan en las ventanas. Entrelazando relatos sobre el fracaso, la resistencia, la huida o la necesidad de empezar de cero, se proyectan escenas de distintos lugares e instantes en el mundo interior de un grupo humano heterogéneo. En esa especie de puzle creado por la autora, ciertos lugares se convierten en protagonistas: París, Uribe Kosta y, sobre todo, Berlín. Con esos ingredientes, el segundo libro de Irati Elorrieta ofrece un friso vivo de instantes en parte vanos y en parte vitales.



Premios de anteriores ediciones

- (1997) Epaltza, Aingeru. *Tigre ehizan*, Elkarlanean.
- (1998) Juaristi, Felipe. *Galderen geografia*, Alberdania.
- (1999) Lertxundi, Anjel. *Argizariaren egunak*, Alberdania.
- (2000) Oñederra, Lourdes. *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Erein.
- (2001) Saizarbitoria, Ramon. *Gorde nazazu lurpean*, Erein.
- (2002) Borda, Itxaro. *%100 Basque*, Susa.
- (2003) Lizarralde, Pello. *Larrepetit*, Erein.
- (2004) Muñoz, Jokin. *Bizia lo*, Alberdania.
- (2005) Cano, Harkaitz. *Belarraren ahoa*, Alberdania.
- (2006) Zaldúa, Iban. *Etorkizuna*, Alberdania.
- (2007) Montoia, Xabier. *Euskal Hiria sutan*, Elkar.
- (2008) Muñoz, Jokin. *Antzararen bidea*, Alberdania.
- (2009) Lete, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela.
- (2010) Etxegoien, Fermin. *Autokarabana*, Pamiela.
- (2011) Apalategi, Ur. *Fikzioaren Izterrak*, Susa.
- (2012) Cano, Harkaitz. *Twist*, Susa.
- (2013) Saizarbitoria, Ramon. *Martutene*. Erein
- (2014) Atxaga, Bernardo. *Nevadako egunak*. Pamiela
- (2015) ...
- (2016) Garde Iriarte, Luis. *Ehiztariaren isilaldia*. Pamiela
- (2017) Serrano, Asier. *Linbotarrak*. Pamiela
- (2018) Rodríguez, Eider. *Bihotz handiegia*. Susa.



Irabazlea - Ganadora: **Irati Elorrieta**
Izenburua - Título: ***Neguko argiak***
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**





EUSKADI LITERATURA SARIA

EUSKARAZKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA

2019

Epaimahaia:

- Lore Agirrezabal Pertusa epaimahaiburua
- Leire Diaz de Guereñu Lasaga epaimahaikidea
- Ziortza Onaindia Bereziartua epaimahaikidea
- Igor Idoeta Irazabal epaimahaikidea
- Xabier Olaso Bengoa epaimahaikidea

Irabazlea eta sariaren nolakoa

Irabazlea: Patxi Zubizarreta Dorronsoro
 Izenburua: *Korri, Kuru, korri!*
 Argitaletxea: Ibaizabal

18.000 euroko saria, eta beste 4.000 eurokoa lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaiak ikusitako meritak

Etiopiatik migratzen ari den Kuru mutikoaren eta istripu txiki baten ondorioz ospitalera doan neskatoaren arteko enkontruarekin hasten den istorio hunkigarri honek, egitura narratibo aberatsa du eta, bestalde, ugari eta anitzak dira bere luze-zabalean agertzen dituen hiri, pertsonaia, eszenatoki, ekintza eta gertakariak. Horiek guztiek, eta ibilbidearen arian gertatzen diren gorabeherak ere, irakurlearen jakin-mina pizten dute hasieratik, eta irakurketa ametsean bezala igarotzen dela esan daiteke, erraz eta arin igaro ere. Jirafa baten bidaia aitzakiatzat hartzen da kultura, lekuak, eta bizitzako paradoxen arteko joan-etorriak egiteko, betiere ihesaren gordintasunaren gaia gailentzen delarik.

Orrietan aurrera egin ahala, erreferentzia kultural aberatsak oharkabean eskaintzen dizkigu idazleak, hasi Etiopiatik eta Parisera bitarte, euskal kulturaren parte direnak ere hari horretara maisuki ekarriz.

Aipatzekoa da, finean, hizkuntzaren erabilera aberats bezain zehatz eta doia, narrazioa biribildu eta berau indartzen duten irudi eder eta iradokitzaileak sortzeko. Norabide berean elkartzen diren ahots narratibo ezberdinen bitartez eraikitzen da istorioa, fin eta dotore. Hartara, bada, lan bikaina eta ezinbestean nabarmentzekoa deritzogu Patxi Zubizarretaren “Korri, Kuru korri!” kontakizun honi.

Patxi Zubizarreta Dorronsoro

Ordizia 1964

Gasteizen bizi da bertan euskal filologia ikasketak amaitu zituenetik.

Helduentzat Joan, Hiru gutun Iruñetik, 50, Julien Vinsonen hegaldia... bezalako nobelak idatzi ditu. Gazte eta haurrentzat, besteak beste, *Eztia eta ozpina, Usoa, Xia Tenzinen bidaia miresgarria, Korri, Kuru, korri!*... lanak argitaratu ditu.

Itzultzailea ere bada: *Mirarien kalezuloa, Printze txikia, Malenkonia arabiar bat...* Halaber, bere obra hainbat hizkuntzataraz itzulia izan da. Beste batzuen artean, Euskadi Saria, Irun Hiria, Ignacio Aldecoa edo Ala Delta sariak eskuratu ditu. Nabaria da bere lanek erakusten duten diziplinartekotasuna: Elena Odriozola, Jokin Mitxelena edo Mintxo Cemillan gisako ilustratzaile-pintoreekin; edota Joserra Senperena, Maddi Oihenart edo Pello Ramirez musikari-kantariekin. Hamaika errezitaldi eta performance bideratu ditu Euskal Herrian barrena eta atzerrian. Adituek, bere obran erroak —euskal tradizioa Urrezko giltza liburu-diskoan gaurkotua eskaintzeko ahalegina nazioarteko IBBYko ohorezko zerrendan jasoa geratu zen, eta Gasteizko Santa Maria



katedralari buruzko Katedral zaharra, berri dibulgazio liburua nabarmendua izan dute— eta hegoak argi antzeman dituzte, batik bat mundu arabiarra zabalduak —Atlas sentimentala, Laranja bat zaborretan, antologiak eta errezitaldiak...

Korri, Kuru, korri!

Mediterraneoak ur baino istorio gehiago dauzka. Etiopiatik Parisera bidean, jirafa batek 1827. urtean zeharkatu zuen. Kuruk ere gurutzatu berria du, baina nekez eta kostata, eta orain ospitale batean dago, kanpoan inauteriak ospatzen diren bitartean. Eta hara non mutikoak han neska bat ezagutu duen, jirafa mozorroarekin, eta nork daki, agian neskak lagundu beharko dio istorioz betetako bidaia jarrai dezan... Sinbad marinelaren edo Marco Poloren.

Aurreko edizioetako irabazleak

- (1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
- (1998) Zubizarreta Dorronsoro, *Patxi. Gizon izandako mutila*, Pamiela.
- (1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
- (2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
- (2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritz.
- (2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
- (2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
- (2004) J. M Olaizola "Txiliku". *Osaba Bin Floren*, Elkar.
- (2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
- (2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
- (2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
- (2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
- (2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
- (2010) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
- (2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein.
- (2012) Zaldia Gonzalez, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak.
- (2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela.
- (2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar.
- (2015) Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda. *Argiaren alaba*. Autoedizioa.
- (2016) Alberdi Estibaritz, Uxue. *Besarkada*. Elkar.
- (2017) Bilbao Barruetabeña, Lorea. *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. Pamiela.
- (2018) Rodriguez, Eider. *Santa Familia*. Ikastolen Elkartea.



PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL EN EUSKERA

2019

Jurado:

- Lore Agirrezabal Pertusa, presidentea
- Leire Díaz de Guereñu Lasaga, vocal
- Ziortza Onaindia Bereziartua, vocal
- Igor Idoeta Irazabal, vocal
- Xabier Olaso Bengoa, vocal

Ganador y dotación del premio

Ganador: Patxi Zubizarreta Dorronsoro

Título: *Korri, Kuru, korri!*

Editorial: Ibaizabal

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si se publica la obra ganadora en otra lengua.

Méritos observados por el jurado

Esta historia conmovedora comienza con el encuentro entre Kuru, un chico emigrante etíope, y una chica hospitalizada como consecuencia de un accidente leve. Tiene una rica estructura narrativa y, por otro lado, a lo largo del relato presenta una gran variedad de ciudades, personajes, escenarios, acciones y sucesos. Todo ello, y los distintos acontecimientos que conforman el relato generan curiosidad al lector o lectora desde el mismo comienzo y podemos afirmar que el proceso de lectura transcurre como en un sueño, con fluidez y ligereza. El viaje de una jirafa es el pretexto para presentar vaivenes entre culturas, lugares y paradojas vitales, aunque la crudeza de la huída predomina a lo largo de todo el relato.

Según vamos leyendo el autor nos ofrece ricas referencias culturales inadvertidamente, comenzando por Etiopía y hasta llegar a París, insertando magistralmente, además, referencias propias de la cultura vasca.

Destacar asimismo el uso tan rico como preciso y exacto que el autor hace del euskera para pulir la narración y crear imágenes bellas y sugerentes que la enriquezcan. La historia, bella y elegante, se construye a través de distintas voces narrativas que se juntan en una misma dirección. Por eso, creemos que la obra "Korri, Kuru korri!" de Patxi Zubizarreta es sobresaliente y, sin duda, digna de ser destacada.

Patxi Zubizarreta Dorronsoro

Ordizia, 1964.

Vive en Vitoria-Gasteiz desde que finalizara sus estudios de Filología Vasca.

Ha escrito novelas como *Joan, Hiru gutun Iruñetik*, *50* ó *Julien Vinsonen hegaldia* para adultos. En el ámbito de la literatura infantil y juvenil ha publicado obras como *Eztia eta ozpina*, *Usoa*, *Xia Tenzinen bidaia miresgarria* o *Korri, Kuru, korri!*.

También ejerce como traductor: *Mirarien kalezuloa*, *Printze txikia*, *Malenkonia arabiar bat...* Además, su obra ha sido traducida a varios idiomas. Ha logrado varios premios como el Premio Euskadi, Ciudad de Irun, Ignacio Aldecoa o Ala Delta. La interdisciplinariedad de sus obras es digna de mención: con ilustradores-pintores como Elena Odriozola, Jokin Mitxelena o Mintxo Cemillán; o músicos-cantantes como Joserra Senperena, Maddi Oihenart o Pello Ramírez. Ha ofrecido numerosos recitales y performances en en País Vasco y el exterior. Los expertos destacan en sus obras las raíces -el libro-disco *Urrezko giltza*, que pretende ofrecer una visión actualizada de la tradición vasca y está incluido en la lista de honor de IBBY o la obra divulgativa



Katedral zaharra, sobre la catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz- y las alas, abiertas fundamentalmente hacia el mundo árabe —*Atlas sentimental, Laranja bat zaborretan*, antologías y recitales...-.

Korri, Kuru, korri

El Mediterráneo está más lleno de historias que de agua. Una jirafa lo atravesó en 1827: en realidad, era una cría que el pachá de Egipto quería regalar al rey de Francia. Un muchacho, Kuru, acaba de cruzar el mismo mar a duras penas y ahora se recupera en un hospital europeo mientras fuera celebran el carnaval, ajenos a su drama. El chico conoce allí a una chica lesionada que, casualmente, llega disfrazada de jirafa. A la hora de presentarse, él prefiere contarle la historia de Zarafa, la jirafa, que no es tan amarga como su vida. Con ecos de *Simbad* y de *El libro de las maravillas* de Marco Polo, la obra hipnotiza por su estilo realista y delicado, combina en su justa medida la sal y el azúcar, y nos interpela sutilmente al poner nombre a los que son considerados meros los números.

Ganadores en las anteriores ediciones del premio


- (1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
- (1998) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Gizon izandako mutila*, Pamiela.
- (1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
- (2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
- (2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritz.
- (2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
- (2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
- (2004) J. M Olaizola "Txiliku". *Osaba Bin Floren*, Elkar.
- (2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
- (2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
- (2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
- (2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
- (2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
- (2010) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
- (2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein.
- (2012) Zaldúa González, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak.
- (2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela.
- (2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar.
- (2015) Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda. *Argiaren alaba*. Autoedizioa.
- (2016) Alberdi Estibaritz, Uxue. *Besarkada*. Elkar.
- (2017) Bilbao Barruetaña, Lorea. *Xomorropoemak eta beste piztia batzuk*. Pamiela.
- (2018) Rodríguez, Eider. *Santa Familia*. Ikastolen Elkarte.



Irabazlea - Ganador: **Patxi Zubizarreta Dorronsoro**
Izenburua - Título: ***Korri, Kuru, korri!***
Argitaletxea - Editorial: **Ibaizabal**



Argazkia: Luis Magán





EUSKADI LITERATURA SARIAK

LITERATURA LANAREN ILUSTRAZIOA

2019

Epaimahaia:

- Yolanda Mosquera Fernández epaimahaiburua
- Higinia Garay Zarate epaimahaikidea
- Jon Mantzisor Uria epaimahaikidea
- Mikel Valverde Tejedor epaimahaikidea
- Ainara Azpiazu Aduriz epaimahaikidea

Sariduna

Egilea: Asisko Urmeneta
 Izenburua: AztiHitza: *Xahoren biografikoa*
 Argitaletxea: Erroa argitaletxea

18.000 euroko saria, eta beste 4.000 eurokoa lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

Epaimahaiak ikusitako merituek

2019ko Euskadi Literatura Saria Ilustrazio modalitatean Asisko Urmenetaren *AztiHitza: Xahoren biografikoa* lanari ematea erabaki du epaimahaiak, komikiaren lengoaiaren mugekin jolasten duen proposamen arriskutsua izategatik.

Bitartekoen ekonomiak estilo pertsonal baten alde jarduten du, eta modu burutsuan erabiltzen da, bi tinte eta horiekin sortzen diren bilbeein ahalik eta etekin handiena ateraz. Kode bisual honek tonu-balioen eta lerroaren adierazkortasunaren arteko etengabeko jolasa eragiten du, grabatu espresionista alemaniarra eta bere indar komunikatiboa gogora ekarriz.

Bineten bidezko irakurketa bisual narratiboak, edo hondoaren eta binetaren arteko jolasek modu arin eta adimentsuan ekintza eta denbora-espazio desberdinetara zuzentzen dute begirada, eta aniztasun grafikoak eta planoen barietateak markatzen dute istorioaren erritmo animatua.

Gai historiko eta dibulgazio-lan baten barruan estilo komiko-umoristikoa erabiltzeak proposamen ausarta egiten du, eta argitalpenak, bere itxuran entziklopediak edo kodize argiztatuak gogora ekartzen dituenak, ausardiaz gordetzen du normalean beste euskarri batzuekin lotzen den modu grafiko bat. Horren ondorioz, obra, bere osotasunean hartuta, liburu objektutzat hartzen da, non komikiak eta umoreak komunikazio- eta ikus-hizkuntza gisa duten balioa nabarmentzen den..

Asisko Urmeneta Otsoa-Errarteko, "Asisko"

Iruña-Pamplona, 1965

Hainbat taldetako kidea izan da: "Napartheid", "Marraskirri", "Anitx Txintxon (i)", "Zazpiak Batman", "H28" edo "Xabiroi". Nazioartean saritua izan da: Kuba, Korsika, Australia, Argentina edota Frantzia. Euskal Herrian ere saritua izan da: Iruñeko Udala, Nafarroako Gobernua, Ondarroako I Sormen Saria edota Gasteizko 'Urteko nafarra'. Bere komiki albumen artean honako hauek aipa daitezke: "Hegoekialde Urruneko Legenda", "Erraondo", "I am Pellot Biba Festa" (Anitx Txintxon (i) kolektiboan; zuzendaria, Koxemari Larrea), "Okatxu" (Mattin Irigoien eta Adur Larrearekin), "Gartxot" (Marko Armspachekin) edota "Eusklabo Alaiak". Eta zenbait filmetan ere parte hartu du: "Munduari Bira Doan" eta "Gartxot" (Edorta Barruetabeña eta Juanjo Elordirekin). Aipatu behar da liburu ilustratu eta zinta grafiko ugari argitaratu dituela. Azkenik, ikerketak eta sormen lanak

egin ditu hizkuntza ez-formalaren inguruan ("Mantxut" bilduma Kike Amonarriz, Jon Alonso eta Antton Olariagarekin).

Xahoren biografikoa



Aurreko edizioetako irabazleak

- (2009) Odriozola, Elena. *Aplastamiento de las gotas*, Laberinto de las Artes.
- (2010) Mitxelena, Jokin. *Ipuin-kontalariaren lapikoa*, Aizkorri.
- (2011) Barrenetxea, Iban. *Bombástica Naturalis*, A buen paso.
- (2012) Morante, Sara. *La flor roja*, Nevsky Prospects.
- (2013) Odriozola, Elena. *Tropecista*, Barbara Fiore Editora.
- (2014) Gurrutxaga, Maite. *Habiak*, Txalaparta
- (2015) G. Lartitegi, Ana. *El libro de la suerte*. A buen paso
- (2016) Casal Patiño, Mikel. *Así es la dictadura*. Media Vaca.
- (2017) Valverde, Mikel. *Versos de Deportes*. SM.
- (2018) Mosquera, Yolanda. *La Pequeña Roque*. Yacaré



PREMIOS EUSKADI DE LITERATURA

ILUSTRACIÓN DE UNA OBRA LITERARIA

2019

Jurado:

- Yolanda Mosquera Fernández presidenta del tribunal
- Higinia Garay Zarate vocal del tribunal
- Jon Mantzisor Uria vocal del tribunal
- Mikel Valverde Tejedor vocal del tribunal
- Ainara Azpiazu Aduriz vocal del tribunal

Premio y premiado

Autor: Asisko Urmeneta
Título: AztiHitza: *Xahoren biografikoa*
Editorial: Erroa argitaletxea

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

Razonamiento del jurado

El jurado ha decidido conceder el premio Euskadi de Literatura en la modalidad de Ilustración a la obra de Asisko Urmeneta "AztiHitza: Xahoren biografikoa", por ser una propuesta arriesgada que juega con los límites del lenguaje del cómic.

La economía de medios actúa a favor de un estilo personal y se utiliza de forma ingeniosa, sacando el máximo provecho a las dos tintas y las tramas que con ellas se generan. Este código visual, provoca un juego continuo entre los valores tonales a partir del contraste y la expresividad de la línea evocando el grabado expresionista alemán y su fuerza comunicativa.

La lectura visual narrativa mediante viñetas, o los juegos entre fondo y viñeta dirigen la mirada hacia acciones y espacios temporales diferentes de forma ágil e inteligente, y la variedad gráfica y de planos marca el ritmo animado de la historia.

El uso del estilo cómico-humorístico dentro de una temática histórica y trabajo de divulgación hace que sea una propuesta valiente, y la publicación, que evoca en su aspecto a las enciclopedias o los códigos iluminados, encierra de forma audaz un modo gráfico que normalmente es asociado con otros soportes. Esto hace que la obra, en todo su conjunto, sea considerada como un libro objeto donde se resalta el valor del cómic y del humor como lenguaje comunicativo y visual.

Asisko Urmeneta Otsoa-Errarteko, "Asisko"

Iruña-Pamplona, 1965

Asisko ha sido integrante de distintos colectivos: "Napartheid", "Marrazkirri", "Anitx Txintxon (i)", "Zazpiak Batman", "H28" o "Xabiroi". Ha sido premiado en el ámbito internacional: Cuba, Córcega, Australia, Argentina o Francia. Asimismo, ha sido también premiado en Euskal Herria: Ayuntamiento de Iruñea-Pamplona, Gobierno de Navarra, Sormen Saria de Ondarroa o 'Navarro del Año' en Vitoria-Gasteiz. Entre sus álbumes de cómic cabe mencionar: "Hegoekialde Urruneko Legenda", "Erraondo", "I am Pellot Biba Festa" (en el colectivo Anitx Txintxon (i); director, Koxemari Larrea), "Okatxu" (con Mattin Irigoien y Adur Larrea), "Gartxot" (con Marko Armspach), "Eusklabo Alaiak", "AztiHitza" o "1620: Nafarroa BehereGaina". Mientras que entre sus películas destacan "Muduari Bira Doan" y "Gartxot" (ambas con Edorta Barruetabeña y Juanjo Elordi).



Finalmente, ha publicado numerosos libros ilustrados y tiras gráficas, y también ha realizado investigaciones y obras creativas en torno al lenguaje no formal (colección "Mantxut" con Kike Amonarriz, Jon Alonso y Antton Olariaga).

Obras premiadas en ediciones anteriores

- (2009) Odriozola, Elena. *Aplastamiento de las gotas*, Laberinto de las Artes.
- (2010) Mitxelena, Jokin. *Ipuin-kontalariaren lapikoa*, Aizkorri.
- (2011) Barrenetxea, Iban. *Bombástica Naturalis*, A buen paso.
- (2012) Morante, Sara. *La flor roja*, Nevsky Prospects.
- (2013) Odriozola, Elena. *Tropecista*, Barbara Fiore Editora.
- (2014) Gurrutxaga, Maite. *Habiak*, Txalaparta
- (2015) G. Lartitegi, Ana. *El libro de la suerte*. A buen paso
- (2016) Casal Patiño, Mikel. *Así es la dictadura*. Media Vaca.
- (2017) Valverde, Mikel. *Versos de Deportes*. SM.
- (2018) Mosquera, Yolanda. *La Pequeña Roque*. Yacaré

Irabazlea - Ganador: **Asisko Urmeneta**
 Izenburua - Título: **Aztihitza: Xahoren Biografikoa**
 Argitaletxea - Editorial: **Erroa argitaletxea**



Argazkia: Galder Eizagirre

